

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Ayerdi lehendakariordeak eta Carlosena errektoreak NAITEC eta NUPen arteko lankidetzaren hitzarmena sinatu dute

*Erakundeek baliabide teknikoak eta giza baliabideak partekatuko dituzte automozioaren eta mekatronikaren inguruan ikerlanak egiteko*

Asteartea, 2019.eko otsailak 12

Manu Ayerdik NAITEC Fundazioaren lehendakari eta Garapen Ekonomikoko lehendakariordeak eta Alfonso Carlosenak Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) errektoreak, zentro akademikoaren eta I+G Automozioa eta Mekatronika (NAITEC) [Fundazioaren](#) izenean lankidetzaren hitzarmena sinatu dute, gaur, asteartean. Hitzarmen horren bidez, erakundeek kooperazioa sustatu nahi dute beren ikertzaile-taldeen artean, I+G+b jardueretan, eta, bereziki, automozioaren eta mekatronikaren diseinuari eta aplikazioari lotutako sektoreetan.



Ayerdi eta Carlosena hitzarmena sinatu ostean, Nafarroako Jauregian.

Hitzarmenak lau urteko indarraldia izango du eta beste lau urtez luzatu ahal izango da. Alderdi hauek aurreikusten ditu: NUPen ikertzaileen parte-hartzea NAITECen, azpiegituren erabilera partekatua, ikerketaren kudeaketa eta jabetza industrial eta intelektuala eta argitalpenak. Horrez gain, bat egingo dute ikerketaren alorrean diharduten langileak bereganatzeko, prestatzeko eta haien talentua garatzeko lanetan, eta elkarri ezagutzak trukatzeko dizkiote.

Bi erakundeen arteko akordioak Nafarroan berrikuntza-sistema bakar bat egonkortzea du xede, oinarriko kontzeptuetatik abiatuta, eta irtenbide aplikatuak gehitzen joatea gizarteari balioa erantsiz eta Nafarroako I+G+b sistemaren (SINAI) inpaktu zientifikoa eta gizartearen ikerlanari buruzko ezagutza areagotuz.

Azken hilabeteotan bi erakundeak elkarlanean aritu dira, besteak beste azaroan Iruñean egin ziren EMCren (bateragarritasun elektromagnetikoa) Espainiako IV. Jardunaldien antolaketan. Jardunaldira 120 profesional

espezialista bildu ziren.

Horrez gain, hainbat ikerketa-proiektutan kolaborazioa areagotu dute, eta NUPen ingeniartzako ikasleei NAITECen praktikaldia egitea ahalbidetu diete, baita zentro teknologikoan gradu amaierako lanak egitea ere.

Gogoratu behar da Nafarroako Gobernuaren eta NUPen arteko ekimenez sortu zela NAITEC Fundazioa, teknologia berriak garatzeko zentro teknologiko berria, Foru Gobernuaren Espezializazio Adimenduaren Estrategian lehentasunezkoak diren automozioaren eta mekatronikaren sektoreak aurrera eramateko teknologia berriak sustatzeko. Aipaturiko bi erakunde horiez gainera, Fundazioaren Patronatuko kide dira SODENA enpresa publikoa, ADITECH korporazio teknologikoa eta baita enpresa hauek ere: Iberdrola, Acciona, Ingeteam, Viscofan, Grupo Meper taldea, Laboral Kutxa, KYB, Dana, Volkswagen Navarra, Grupo Antolín eta Entecnia.

NAITECen plan estrategikoak 2025erako xede du erakundea bikaintasunezko zentro bihurtzea eta Europako aitorpena lortzea mugikortasun iraunkorraren eta fabrikazio-prozesu berrien eremuetan. Horretarako, kudeaketa hiru ardatz hauetan oinarrituko du: pertsonak, ezagutza eta negozio iraunkorra.

Zentro teknologikoak ildo teknologiko hauetan egingo ditu ikerketak:

Ibilgailuen eta material berrien arintzea.

Inprimatze funtzionala.

Sentsoreak eta datuen atzitzea.

Adimen artifiziala.

Robotika kolaboratiboa.

Egituraren, beroaren eta isurien diseinua.

Komunikazioak eta komunikazio-segurtasuna.

Balioztatzea.

Materialak.

Metatze-sistemak.



Talde-argazkia, NUPen eta NAITEC Patronatuaren ordezkariekin.